

Gure Ametsa Dantza Taldea

Ermuko dantza taldeen artean ibilbide luzea du. Txindurri dantza eta txistu taldearekin batera Ermuko Euskal Jaia antolatzen du.



-Zein urtetan sortu zen taldea?
1977an.

-Zenbat kide zarete?

Gaur egun guztira 50 lagun inguru ari gara 3 talde ezberdinetan. Txikien taldea (5-6 urte), ertainen taldea (9-10 urte) eta nagusien taldea (20-30 urte). Gure Ametsa sortu zenean, 200 pertsona zeuden.

-Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Talde guztiak astean behin biltzen gara entseguak egiteko. Txikien taldea Eskolabarrin biltzen da. Orain arte ertainen eta nagusien taldea

Aritzmendi pilotalekuan aritzen zen baina Lobiano Kultur Gunea zabaldu zenetik, Lobianon entseatzen dugu ertainek eta nagusiek.

-Zein helburu dituzue?

Euskal dantza herrian sustatu eta suspertu. Euskal dantzak ikasiz, herriari dantzak erakustea.

-Urtean zehar zeintzuk ekitaldi egi-ten dituzue?

Txindurri txistu eta dantza taldearekin batera, maiatzean Euskal Jaia, uztailan Santixauetako erakustaldia eta Santixauetako Zezen eguneko Soka Dantza antolatu.

Bestalde, Gure Ametsa moduan, irailean "Gure Ametsa" eguna antolatzen dugu, azaroan San Martin azokan bi urtetik behin dantzan egiten dugu, urtean zehar kultur etxe ezberdinek ospatzen dituzten egunetan eta San Juan Sua antolatzen dugu.

-Ermutik kanpo ere egiten dituzue saioak?

Txikien taldearekin Durangaldeko Euskal Jaietara irtetzen gara eta inoiz herri ezberdinekin trukeak egin ditugu: Kordoba, Albacete, Galizia eta Asturiasen egon gara.

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

san antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
IMPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna